

Baserritarrak eta Ceausescu

El Mundo del País Vasco, 1992-01-03.

"Aldeano", deitu nau norbaitek orain gutxi. Ez bakarka aurpegira, baizik eta orokortasunaren pakete barruan sartuta. Nicolas Redondo semeak, Bizkaiko PSOE-PSEren buru denak. Nico aitak hobeto ezagutzen gaitu. Baina Niko aitak ez, semeak bota berria du hitza euskal abertzaleok presaka samar definitzerakoan. Egia esan, hala gara gehienok, baserritarrak, edo gertutik gatozenak. Egia honek ez ninduke haserreraiziko, beraz. Baina hitzak bi zentzu nota nagusi ditu, gutxienez: hiztegia, zuzenean ematen diotena, eta edapenez naiz hartzen duen beste bat; eta agerian dago PSOEko txoriburu honek zein zentzutuan erabili duen, zer esan nahi duen: "aldeano", "jebo". Honek eta honelako beste batzuk pentsatzen dute, eta esan gainera, bi bekatu!, hiriburuetan jaio ez dena kirten bat dela! Batez ere Espainiako inperioaren dotea tokatzen zaiola uste dutenak. Baina hemendik kanpo ere joera zabaldua dago sozialisten artean; hara hor, exenplu gisa, Errumanian. Historiak hara eta honera erabili berria du nola berria honetako Presidente zen Nicolae Ceausescu jaunak herriska eta baserri guztiak desagertzeko kanpaina handian ari izan den; baserri eta mendiko etxeko guztiak erroetatik suntsitu eta baserrietan bizi zen gizarteri pobre eta ezjakin guzti hori, baraztetako aza-porrurik eta ukuiluetako abere eta oilotegietako oilasko, oilo, oilar, txito eta gainontzekoek lohitzten zuten lur eta jebokeria dena suntsitu eta pertsona hauen porlanezko etxe garaietan sartzeko aspaldi martxan zegoen kanpainaren joera, errumaniar guztiak hiritar txukun eta eskolatuak izan zitezen. Geroztik, jendeak izan du mirari honetaz berri ugari.